FROGAREN ARAUDIA

1. ART.: BOSTIBAIETA KIROL ELKARTEAK, **JARINDO ALBERTIA MENDI LASTERKETA**ren 9. edizioa antolatu du, **2022ko URRIAREN 16an,** Legution (Araban), Legutioko Udalaren babesarekin.

2. ART.: IX. Jarindo Albertia Mendi Lasterketa, Arabako Mendi Federazioak (AMF) bultzatutako mendi lasterketen Arabako Txapelketa izango da.

3. ART.: ORDUTEGIA ETA IRTEERA-LEKUA

11: 00etan, Legutioko udaletxearen aurrean. El Carmen kalea, 10.

4. ART.: IBILBIDEA

Ibilbidea Arlabango Mendien eta Legutioko (566m) ingurune naturalean egingo da. Herri horretatik, Jarindo (895m) gailurrera igotzen da lehenik, eta Albertiara (867m) gero, pago kimatuen eta haritzen baso trinkoa zeharkatuz.

Lur mota: **% 10 asfaltoa, % 40 pista eta % 50 bidezidorra**

Distantzia: **15,930 km**

Desnibel positiboa: **629 m**

5. ART.: PARTE-HARTZAILEAK

Baldintzak: 2006an edo lehenago jaiotako pertsona orok parte hartu ahal izango du, baldin eta federazio-zehapenik ez badu eta aldez aurretik dagokion inskripzioa egin badu.

18 urtetik beherakoak: **aitaren, amaren edo tutorearen idatzitako baimena** aurkeztu beharko dute.

Parte-hartzaileen gehieneko muga: **300**

6. ART.: IZEN-EMATEAK

Lekua: **rockthesport.com** webgunean

Epea: **2022ko abuztuaren 29tik urriaren 10era** edo gehieneko muga bete arte (300 partaide).

Prezioa: **12 €** (prezio bakarra)

7. ART.: ITXARON-ZERRENDA

Itxaron-zerrenda egongo da, baldin eta inskripzioen gehieneko muga ezarritako epea (urriak 10) baino lehen iristen bada.

8. ART.: DORTSALAK

Dortsalak probaren egunean bertan banatuko dira, **9:00etatik aurrera**, Kultur Etxean (udaletxearen aurrean).

Dortsala, gorputzaren aurrealdean eraman beharko da, lasterketa osoan ikusteko moduan.

9. ART.: KRONOMETRAJEA ETA SAILKAPENAK

Denboraren kontrola txiparen bitartez egingo da.

Sailkapen motak:

- **Sailkapen orokor absolutua**
- **Gizonezkoen sailkapen orokorra**
- **Emakumezkoen sailkapen orokorra**
- **Gizonezko bertakoen sailkapena** (Legution erroldatutakoak)
- **Emakumezko bertakoen sailkapena** (Legution erroldatutakoak)

Bostibaieta Kirol Elkartea

- **Arabako Mendi Lasterketen Txapelketako gizonezkoen sailkapena** (federatuak)
- **Arabako Mendi Lasterketen Txapelketako emakumezkoen sailkapena** (federatuak)

10. ART.: GARAIKURRAK ETA SARIAK

Antolatzaileak sari bat emango die sailkapen orokorreko lehen hiru sailkatuei, gizonezkoei zein emakumezkoei, eta baita Legutioko lehen gizonari eta lehen emakumeari ere.

Arabako Txapelketako sariak, AMFk emango ditu, hark erabakitzen duen unean eta moduan.

Sari banaketa **13:00ak aldera** egingo da.

11. ART.: ZOZKETA

Parte-hartzaile guztiak, bertako saltokiak eta enpresak eskainitako produktu eta zerbitzuen zozketan sartuko dira. Saritua izanez gero, dortsala edo nortasun agiria aurkeztu beharko da.

12. ART.: HORNIDURAK

Gutxienez, **bi hornidura-postu** egongo dira; bat likidoa, 8,8 kilometroan, eta bestea solidoa eta likidoa, proba amaitzean. Hondakinak horretarako mugatutako eremuan utzi beharko dira.

13. ART.: ZERBITZUAK

- **ZAINDEGIA**: Parte-hartzaileek poltsa itxi batean utzi ahal izango dute arropa, horretarako prestatutako lekuan. Poltsa jasotzeko dortsala aurkeztu behar da.
- **DUTXAK**: Kiroldegian (mutilak) eta gimnasioan (neskak), biak helmugatik 100 metrora.

14. ART.: ISTRIPU-ASEGURUA

Inskribatutako pertsona guztiek **aseguru bat izango dute** istripuren bat gertatuz gero.

15. ART.: DEBEKUAK ETA BETEBEHARRAK

Segurtasun arrazoiengatik, debekatuta dago bizikletaz edo beste edozein ibilgailuz laguntzea.

JARINDO ALBERTIA IX. MENDI LASTERKETAN parte hartu izana, araudi honi eta antolatzaileen oharrei men egitea dakar. Bestela, Erakundeak dagozkion zehapen-neurriak hartzeko eskubidea hartuko du.